



Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuak, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua aldez aurretik onartzen duena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko urriaren 7ko Aginduaren bidez, seme-alabaren bat duten familientzako laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zen.

Proiektu hau izapidetzeko ardura Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza Zuzendaritzari eman zitzaion

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena beharko dute, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Azaldutakoagatik, landutako proiektuaren testua ikusita, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Seme-alabaren bat duten familientzako laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua testua aldez aurretik onartzea.

Bigarrena. – Dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritik, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua

NEREA MELGOSA VEGA